

BAZTERRE

Euskal Herriko mendiei, oraindik erre usaina zerien eta beltzez jantzitako alargunak ziruditen, biziaren alargun.

Urtearen azken egunak, azken hatsa. Kotxearen aurreko leihatilatik «Douanes Françaises» irakurri dut marroi, urdin eta berde ikustearekin batera. Aurrera jarraitu dut. Kostaldetik abiatu naiz, neketsuagoa dela eta beti bazterrera utzi izan dugun bide horretatik, praktikotasunak zenbat gauza ikusgarri ukatzen dizkigun pentsatu dut. Donibaneko kaia dut orain begi aurrean, kotxea gelditu eta bertako kale eta bazterrak ikusmiratu ditut. Elizan sartu naiz eta hau ezustea, hileta ospakizuna suertatu. Zerraldoaren inguruan, sei zazpibat lagun zeuden euskal hileta-abesti ezagun bat abestuz. Ni sartu naizenean haietariko batzuk ate aldera zuzendu dituzte begiak. Bakardadea ere han zegoen elizan eta izaturik kanpora egin dut.


Donibanetik bide bihurri bat hartuz Sara aldera abiatu naiz. «Col de Ste. Ignace» tik pasatzerakoan «Larun» go tontorrera igotzen den trentxo gogoratu dut eta bertan udaran igoaldi bat egin beharra ere. Saran bueltatxo batzu eman ondoren, euskal kulturaren egundainoko garrantzia eduki duen eliza ikusi dut. Hango harrizko euskal izkribu zaharrak irakurri eta Ainhoara joatea erabaki dut.

Euskal bazter berde politak ikusi ditut, etxe txuri ederrez tartekaturik. Bizitzeko leku paregabea... Eta uste dut lo hartu nuela ametsaren ametsez.

MUNDUTIK AT

*Kalean noalarik,
nere burua
beti tristerik
nabaritzen dut.
Gaur basoan izan naiz
eta dena aldatu da,
bizitzaz bete naiz,
bizitzeko gogoz,
zoriontasuna ere
sentitu dut.*

Lurrean eseri naiz
eta goruntz begiratu
dudanean, zerua kasik
ez zen ikusten.
Zuhaitz adaska berdeen
artetik argi zirrista
bat sartzen zen eta
goruntz begira jarraitu dut.
Txorien abestia nuen diskarik
ederrena, egiazkoena,
egile eskubiderik behar ez duena.
Zoriontasuna ere
sentitu dut.



Joseba Agirretxe